

'Hor dago' txikira

Euskaldunon Egunkaria, 1991-01-08: 2.

Politikak izan behar lituzke eredu edo erregela batzuk.

Musean adinekoak gutxienez.

Musean gezurra ezin duzu debekatu, bestela adio gure hor dagoak! Jokoak berak eskatzen du malizi apur hori, batez ere bi alderditakoak lau erregerekin txikira erasotzeko askatasun bera dutenean.

Gero, gezurretarako aurpegia izatea edo ez izatea, hau bakoitzaren gaitasunari dagokio.

Baina politika serioaren ereduan gezurra legezko egitea gehiegi da, nik uste. Hemen ez bait dago jokoan, askotan musean bezala, tantoak markatzeko eskukada bat babarrun edo garbantzu, baizik eta gizakien sinismen eta sentimentuak.

Eta hau serioagoa da.

"Hor dago" gure herriak asmatu zuen norbaitek beste norbait estuasun batean jartzeko. Musean erabiltzen da, eta baliteke jostaketarako besterik ez izatea. Baina orain gure artean beste estuasun larriagoan jartzeko bada, Politikan esate baterako, hau ez da joku hutsa, hau alprojakeria ere izan daiteke. Eta herri osoak serioa emandako aginpidea musean jokatzeke arauetara jeisten badugu, ez dugu Euskal Herria, gauza serioa, gure arerioentzat barregarri eta guretzat negargarri den ispilu baten aurrean jarri besterik egingo.

Ispilu hau jolas-parkerako ongi dago: gure gorputzak orain lodi, gero luze, hurrengoan oker eta barregarri ikusiaz gure buruaz barre apur bat egiteko.

Baina hau, politika asko jeitsi badugu ere, ez du Euskadik merezi.